

Antxiñako fotografia

Zubillagako emakumiak tabernan

Zubillagako sarreran eguen taberna klasikua itxi zan denborako argazkixa dozue gaurkua. Ixa 60 urteko kontuak dittugu. Oñatira oso gaztetan etorritako **Petra Martínez de Albeniz**, Arriolako arabarra eta Lino Urtzeilaren alarguna, zan orduan Zubillagako **taberna, denda** eta **estankuaren** arduraduna. Despedida moduan Petrari akordau xakon auzoko **emakume danendako merienda** antolaketia. Hain zuzen be, sasoi hareittan gizakumiak bakarrik faten ziralak tabernara. Era askotako frituak, urdaiazpiko-tortillia eta tartia izan zan menua, eta ondoren kantua eta dantzia. Oso gustora geldittu ziralako, eskerrak emuteko, Petrari opariren bat egittia pentsau euen auzoko emakumiak. Eta, garaixan garaikua, etxe-



rako **Jesusen Bihotzaren irudixa** erregalau otsain tabernako amari. Erregalua eruan euen egunekua da argazkixa eta horregatik agiri dira bertan auzoko sakristaua eta kapillaua. Goittik behera eta ezkerretik eskumara honeitxek dittuzue emakume zubillagarrok:

Goixeneko illaran: **Saturnina Gabilondo**, Osiñurdingua; **Luisa Leturia**, Markizabalgua; **Pepita [X.]**, tren-estaziñoko Goiena jefiaren andria; **Irene Aranburu**, Migel Kapaiñena, Txipitxaillera ezkondua; **Petra Aranburu**, Madalenako Goittikua; **Rosa Lazpiur**, Bergaroko Osintxu auzotik Baketxera ezkondua; **Mari Kruz Galdos**, Uribarriko Aingeru baserriatik Zubillagako Forjetako etxe-illarara ezkondua; **Petra Billar**, Arretxe Haundikua; **Martzelina Urizabel**, etxe-illarakua; **Juana Altzelai**, Urtzaillekua; **Zesarea Arrizabalaga**, Arretxe Erdikua; **Gregori Erostege**, Kortazar baserriatik Arotzenera ezkondua; **Maxima Arregi**, Mondragueko Garratzena baserriatik etxe-illarara ezkondua; **Edurne Guridi**, Narbaxenekua; **Juliana Lizarralde**, Igarzabal-etxekua; **Maria Angeles Martínez de Albeniz**, Arabako Arriolakua, tabernako Petraren illobia; **Karmen Zelaia**, Kukarruenekua; eta **Martzelina Markuleta**, Olabarrietako Basazabal baserriatik etxe-illarara ezkondua.

Erdiko illaran: **Martin Igarzabal**, etxe-illarakua eta auzoko sakristaua; **Benigno Iñarra**, parrokixako abadia eta Zubillagako kapillaua; **Maxima Billar**, Arretxetik Errotaburura ezkondua; **Juliana Letamendi**, Azpiko Haundikua; **Bittori Irazabal**, Elgetakua, Olako Porterixara ezkondua; **Sabina Lizarralde**, Kamiñeruenekua; **Juana Inza**, Uribarriko Azkarraga Txikiñekua, Anastasio Mz. de Albenizen andria; **Isabel Leturia**, Azpiko Txikiñekua; **Josefina Urtzelai**, Tabernakoa, Petraren alabia; **Bonifazia Erostarbe**, Zubiaurrekua; **Ines Izurategi**, Arretxera ezkondua; **Guadalupe Mendizabal**, Garaikua, Errotara ezkondua; **Felisa Belastegi**, Antzuolakua [?], Lazkanokora ezkondua; **Kaietana Aeta**, Martezko Txikiñekua; **Maria Billar**, Liñantzibarretik Olabarrenera ezkondua; **Basilisa Segurujauregi** araoztarra, etxe-illarako Azpeitia batekin ezkondua; **Dorotea Aiastui**, izatez Koixkarkua, Matromaira ezkondua; eta **Mikaela Kortazar**, Errementarikua.

Beheko illaran jarritta: **Anjela Unzurrunzaga**, etxe-illarako Martinez de Zuazo batekin ezkondua; **Josefa Zulueta**, etxe-illarako Unzurrunzaga baten andria; **Maria Altube**, Luis Ibarrolaren andria, tabernakuen senidia eta bertan lanian ziharduena; **Petra Martínez de Albeniz**, Zubillagako Tabernako etxeandria; mutikotxua, **Jabier Umerez**, Errotakua; **Maria Izurategi**, Errotako Gregorio Altunarekin ezkondua; **Maria Elortza**, Farretxera ezkondua; **Josefa Albizua**, Etxaguena; **Mikaela Iartza**, etxe-illarakua; eta **Benanzia Murgiondo**, Arretxe Erdiko Leon Agirreurretaren andria.

J. E.

Fotografia Patxi Elortzak ataratakua da 1952ko abenduaren 21ian. Guri Josefina Urtzelaik eskuratu dosku. Argibidiak, berriz, Josefinaenak eta Karmen Zelaiarenak dira. Eskerrik asko!